EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA SAILA**
Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza
*Unibertsitate Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN**
Viceconsejería de Universidades e Investigación
*Dirección de Universidades*

EBAZPENA, 2017ko urtarrilaren 20koa, Unibertsitateetako zuzendariarena; honen bidez, 2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetza beka-eskaeren ebazpena ematen du (B Modalitatea, udan zehar).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak, 2016ko uztailaren 8ko aginduaren bitartez (2016ko uztailaren 13ko EHAA), 2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako Ikasiker lankidetza beken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat. 3.2 artikuluak jasotzen du B Modalitatea: lankidetza egiteko udan zehar.

Hautaketa-batzordeak, 2017ko urtarrilaren 16an, aurkeztutako eskaeren ebazpenerako proposamena aurkeztu egin dio Unibertsitate zuzendariari unibertsitateko Ikasiker lankidetza bekarako 2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 31ra bitartekoa (B Modalitatea, udan zehar).

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 5.500 € (Eranskin I).

Bigarrena: Baldintzak bete arren, beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duen eskatzaileari beka ukatzea (Eranskin II).

Hirugarrena: Interesatuak, gorako errekurtsoa jarri ahal izango dio Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 20a.

**UNIBERTSITATE ZUZENDARIA**

**Francisco Javier Alonso Aldama**

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 02 - Fax 945 01 84 22 - E-mail: huisuniv@euskadi.eus